



DANI BLANCO

**Garbiñe  
Biurrun  
Mancisidor**



LEGELARIA

## Lurrean ezin bizi eta itsasoan hil behar

GOGORRA ETA, batez ere, oso deserosoa egiten zaigu albiste batzuk entzutea. Hobeto esanda, gogorra da jakitea. Planeta osoan pertsona gehiegi sufrizten ari dela jakitea; gure mundua beraientzat “paradisua” dela jakitea –“oraindik irabazi gabeko paradisu” eta ez “paradisu galdua”–; pertsona gehiegik nahiago duela bizia galtzea bizimodua alferrik ateratzen saiatzea baino, euren seme-alabak hiltzen ikustea baino eta, azken finean, euren jaioterrietan jarraitzea baino.

Gogorra egin beharko litzaiguke jakitea, baita ere, ehunka eta milaka pertsona hiltzen direla itsasoan guregana iristen saiatzerakoan eta inoiz ez dugula jakingo zenbat ziren, nortzuk ziren, zer izen zeukaten, zer utzi zuten atzean, zein zeuzkaten zain eta inork inoiz ez duela jakingo zehazki zer gertatu zitzairen.

Gogorra da, noski, irakurtzea, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen arabera, 2013an 60.000 lagun saiatu zirela Ipar Afrikatik Italiara iristen eta kopuru hau 170.000 lagunekoa izan zela 2014an. Oraindik 2015 urteari buruzko daturik ez daukagun arren, iragan berri egun haue-tan gertatutakoari begirada bat ematea nahikoa zaigu zifra horiek guztiz gaindituta daudela ohartzeko. Eta kontuan hartu gehienak, gaur egun, iheslari politikoak direla eta Genevako Konbentzioa aplikatu beharko litzaiekeela, asilo-eskubidea aitortuz.

*Gogorra egin beharko litzaiguke jakitea, ehunka eta milaka pertsona hiltzen direla itsasoan guregana iristen saiatzerakoan eta inoiz ez dugula jakingo zenbat ziren, nortzuk ziren, zer izen zeukaten, zer utzi zuten atzean, zein zeuzkaten zain eta inork inoiz ez duela jakingo zehazki zer gertatu zitzairen*

Gogorra, baita ere, irakurtzea –eta jakitea– hau guztia, edota gehiena behintzat, saihegarria dela eta bi planotan jar daitezkeela irtenbideak. Zeren eta ikusten ari garen benetako drama honek bi arrazoi

garbi ditu: alde batetik, planetako herrialde askotan gertatzen diren pobrezia eta liskar eta jazarpen politikoak; bestetik, Mendebaldeko herrialdeek –Europar Batasunak, kasuan– migrazioekiko hartu duten jarrera.

Gogorra kontuan hartzea gure “paradisua” daukan ardura hainbat herrialde-tako egoeraz: nola jarraitzen dugun lurralde haien aberastasunak ustiatzen eta euren jendea esplotatzen; nola egiten dugun “politika” herrialde askotan eta haiek desegonkortzen –begira, bestela, Libian edota Sirian gertatzen ari dena–; nola murriztu dugun nabarmenki garapenerako lankidetzari eskainitako diru kopurua eta, beraz, lankidetzara bera eta herrialde horien garatzeko aukerak.

Gogorra jakitea zer-nolako neurriak hartzen ari diren Europar Batasuneko mugak estutzeko edo blindatzeko, Espainian, Grezian... gure “lurraldeak” eta, batez ere, gure bizimodua eta gure lasaitasuna babesteko asmoz –nola itzuliko diren etorkinak mugetatik “bero-beroan”, giza eskubideen aurka zuzenean doan neurri baten bitartez–. Eta ez da arinagoa jakitea, Amnesty Internationaltan hitzetan, drama hau saihesteko edota bere ondorioak murrizteko beharrezkoak izango liratekeen neurri zuzenik ez dela hartzen, hau da, Mediterraneo Itsasoan erreskaterako bitartekoak ez direla mantentzen, posible izan arren.

Gogorra egin beharko litzaiguke ohar-tzea egoera hau gure zakarkeriaren, bihozgabekeriaren eta bortizkeriaren ondorio zuzena dela; ez dela posible gure bizimodu pertsonala eta kolektiboa bere horretan mantentzea beste askoren oinarriko eskubideak errespetatu gabe, eta derrigortuta gaudela gure “paradisu” honen abantailak eta arauak aldatzera.

Gogorra eta injustua egiten zaigu gure seme-alabak lan edo askatasun bila atzerriara joan behar izatea. Pentsa dezagun, une batez, zer izango litzatekeen horretarako euren biziak itsasoan utzi beharko balituzte.

Jasanezinezkoa izan beharko luke denontzat injustizia honek. ■